


EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA (IPI), 2013KO UZTAILA

EAEko industria-prezioek % 0,3 gora egin dute gora 2013ko uztailean, aurreko hilabetearekin konparatuta

lazko datuekin konparatuta (2012ko uztaila eta 2013ko uztaila), % 1,0 behera egin dute

2013ko uztailean, EAEko industria-prezioak % 0,3 handitu dira, aurreko hilabetearekin alderatzen baditugu. Horixe adierazten dute EUSTATEko datuek. Hala, uztaileko urtetik urterako tasa (azken hamabi hilabeteotako industria-prezioen aldakuntza jasotzen duena) % 1,0 murriztu da.



Sektoreak zehatzago aztertuta, hauek izan dute prezio-hazkunderik handiena 2013ko uztailean: kokeriak eta petrolioaren fintzea (% 2,0), erauzketako industriak (% 0,7) eta altzariak eta beste manufaktura-industriak (% 0,5). Aldiz, prezio-beherakadarik handiena industria kimikoak (% 0,6), ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintzako industriak (% 0,3) eta garraio-materialen fabrikazioak (% 1,0) izan dute.

2012ko uztailetik 2013ko uztailera bitarteko aldirian, prezioen hazkunderik handienak alor hauetan gertatu dira: botikagintza (% 2,7), ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintzako industrian (% 2,4) eta makineria- eta ekipamendu-fabrikazioan (% 2,0). Beste sektore batzuek, ordea, prezio-murrizketa izan dute, honako hauek, besteak beste: metalurgia eta metal-produktuek (% 3,2), energia elektrikoa, gasa eta lurrunak, eta zurgintza, paper eta arte grafikoen industriak (azken biotan, % 1,7 murriztu dira).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraiki, uztailean, sektore-talde handietako prezioek bilakaera desberdinak izan dituzte. Energiaren eta ekipamendu-ondasunen prezioak igo dira: % 1,2 eta % 0,2, hurrenez hurren. Orokorki begiratuta, bitarteko ondasunek eta kontsumo-ondasunek ez dute aldakuntzarik izan (% 0,0). Kontsumo ondasunen kasuan, hori hala izan da kontsumo-ondasun iraunkorren prezioek behera egin dutelako (% 0,1) baina behera, aldiz, kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak (% 0,1).

Urtetik urterako aldiari, ondasun-talde handi horietako prezioen aldakuntzek beheranzko joera izan dute kasu guztietan. Energiari dagozkionek behera egin dute (% 1,4), bai eta bitarteko ondasunenak ere (% 2,1). Ostera, kontsumo-ondasunenak % 0,3 murriztu dira, orokorki begiratuta. Azken horien artean, kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak % 0,1 areagotu dira, eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak, % 0,4 murriztu. Ekipamendu-ondasunen prezioek, aitzitik, % 1,2 gora egin dute.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak. 2013ko uztaila (p)

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2013uzt / 2013eka	2013uzt / 2012uzt	2013uzt / Abe2012
INDIZE OROKORRA	109,6	0,3	-1,0	0,2
Sektore-banaketa				
Ateratze-industriak	97,1	0,7	-0,7	2,2
Manufaktura-industria	107,7	0,3	-0,9	0,1
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	124,4	0,0	-1,7	0,5
Ondasunak, helburu ekonomikoa				
Kontsumo-ondasunak	104,6	0,0	-0,3	-0,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	101,2	-0,2	0,1	0,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	105,9	0,1	-0,4	-1,2
Ekipo-ondasunak	104,4	0,2	1,2	1,3
Bitarteko ondasunak	104,6	0,0	-2,1	-1,1
Energia	128,0	1,2	-1,4	2,3

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Prezioen Indizearen (IPRI) gainerako datu-bankua